



KATEBEGIA

Politikaren eta literaturaren (h)egian



Hasiera » (B)litteratura » Zangoztraba edo giza kondizioaren metafora

MAI
24

Zangoztraba edo giza kondizioaren metafora

0

Atalak: (B)litteratura



Otto Dix margolariaren *Gerra* koadroak biztuarazi zion eleberrigileari *Zangoztraba* idazteko sugarra.

Literaturaren menturan ibili ginen atzo arrastirian, Hendaiaiko Zokoburun. **Juan Kruz Igerabide**-ren *Zangoztraba* nobela izan genuen hizpide, nobelagile bera lagun.

Solasaldia oparoa izan zen. Idazleak gauza franko kontatzeko dauka gure historia berriaz zein literaturaz. Juan Kruz Igerabidek poliki kontatzen du, abegi onekoa baita, izaki. Alabaina, berak dioenez, berea ikusmolde bat baino ez da, egiara edo errealitatera hurbiltzeko bat. Nork berea

izaki, betiere.

***Zangoztraba*-ra hurbildu nahi izatera,** hona laguneren arteko bideak utzitako arrasto zenbait.

- **Nobela Irunen girotua da,** Donostia eta Baiona bitarte. Trama 1975-1981eko aldian

MIKELASURMENDI

1958an jaioa. Zumarragarra eta urretxuarra, nahiz batzuentzat ezinezko bitasuna izan. **ARGIAko kazetaria.** Politika esparrutik literatura eremura doan jendarteko gaiak jorratzen ditut normalean, Hendaia munduaren epizentroa izaki.

Jarraitu @masurmendi
@masurmendi(r)en Txioak

Bilatu:

Bilatu

KATEGORTAK

gertatzen da. **Trantsizioa deitutakoan**, alegia.

– Idazleak esan zuenez, **“trantsizioko bizipenek naizenaren nortasuna osatu zuten”**

. Horren ondorioa da *Zangoztraba*.

– **Garai hura zirrargarria izan zen, konbultsioz beteta**. Alta bada, jendartea

iraultzaren egunsentia bizitzetik ilunabarrera iragan zen amen batean.

– **Iraultza egingarriaren dezepzioak desilusia eta desolazioa ekarri zituen**, eszeptizismoa zabaldu zen. Mundua –jendartearen eta botereen indar korrelazioak– aldatze ahal eta uste izatetik mundua zena baino are konplexua bilakatu zen. Baita erlatibismoa nagusitu ere, aldian-aldian gertatu legez.

– **Den-dena ez zen txarra izan, ondorioak ere ez**. Egileak, irakasle den aldetik, bizitako latzetatik zer erakutsia badu, eta berak jaso zituen doktrinamendua eta dogmak purgatu ahala, irakasle libreak hezten saiatzen da.

– **Otto Dix margolariaren Gerra** koadroak biztuarazi zion eleberrigileari *Zangoztraba* idaztekougarra.

Zer da Zangoztraba? Hurrengo hitzok zertzeladak baliran hartu eta liburuaren estampa bat osatu dezakezu, liburura hurbildu aldera.

– **Nobela giñol modura antzeztuta dago**. Antzerkiak eta inauteriak taxua eta kolorea ematen dizkiote. Trantsizioa fartsa handia izan zenaren seinale.

– **Pertsonaia nagusia** (Juan eta Joxe, nortasun bikotzekoa) gure soinean daramagun mozerroaren karikatura da, muturrera eramanda betiere. Pertsonaiak pertsonaia, badaude ere – pertsonok ere dugun– koherentziaren isla direnak.

– Alta bada, **pertsonok nagusiki, Zangoztrabako pertsonaien antzera**, irrikek, emozioek eta pultsioek bultzatuta obratzen dugu oroz gainetik. Pultsioa izan zen Igerabide-ren hitz gakoetako bat, eta halakoxe ageri ere bere nobelan.

– **Ez da hitz gako bakarra**. Bizitzan nola nobelan traizioak munta handia dauka, baita absurduak ere. Gure izatearen absurdua barneratu eta azaleratu gabe, gaitza da bizitza jasatea. Ironiaren bitartez egiten dugu aitzina halaber. Ironia ere berba giltza da, alafede. **Traizioa, absurdua eta ironia dira nobelaren hitz klabeak**.

– **Zangoztraba giza kondizioaren metafora duzu**. Pertsonak historia behin eta berriz errenikatzena kondemnatuta gaudela berresten diguna, nolabait Otto Dixek XX. mende

▶ (A) iruzkin literarioak

▶ (B) literatura

▶ (C) politika

▶ (D) kulturagintza

▶ (E) gizartea

▶ (H) endaiak

▶ Antzerkia

▶ Artea

▶ Azpiegiturak

▶ Bertsolaritza

▶ Dantza

▶ Ekonomia

▶ Energia

▶ Erligioa

▶ Euskara

▶ Hedabideak

▶ Hezkuntza

▶ Historia

▶ Hizkuntzak

▶ Jaiak

▶ Kirola

▶ Musika

▶ Natura

▶ Nazioartea


▶ Osasuna

▶ Politika saioak

errepikatzea kondenaia gaudela berresten diguna, nolabait. Oso Dixerak. Mendeko mundua margotu legez, pertsonok sorrarazitako krudelkeria jasan ahal izateko *Zango trabak* negarraren barrea iradokitzen digu, bizitzan aurrera egiteko gure irri zuria barregura beltzaz zipriztindu beharra proposatu ere.



Juan Kruz Igerabide idazlea jende aurreko hitzaldian.



Igerabide "Literaturaren menturan" taldekien artean.

Irakur ABGIAko berriak: [astelero](#), [berriak](#), [edo](#), [guzia](#), [sua](#), [leku](#), [trails](#)

- ▶ Saillkatugabeak
- ▶ Zientzia eta teknologia
- ▶ Zinema

AZKEN BIDALKETAK

- ▶ Zango traba edo giza kondizioaren metafora
- ▶ Eskualdeak eta Aldundia, herriak eta alkateak
- ▶ Epistolak eta letaniak. Pistolak eta letaginak
- ▶ Legazpi konkistatzailea eta Iparragirre bardoa: bi figura bi herrien ikonografian
- ▶ Badoa... badirau, nebulosatik izar-lainoraino

IRUZKIN BERRIAK

- ▶ Norastorgarlensiu(e)k
Memoriaz II (Gabriel Arestiren omenez) bidalketan
- ▶ Mikel Asurmendi(e)k Now!
Happy new year bidalketan
- ▶ patxi gaztelumendi(e)k Now!
Happy new year bidalketan
- ▶ Mikel Asurmendi(e)k
Memoriaz II (Gabriel Arestiren



omenez) bidalketan

- ▶ Vicent Gil de Paules Balda(e)k
Memoriaz II (Gabriel Arestiren
omenez) bidalketan

Iruzkina idatzi

Zure e-posta helbidea ez da argitaratuko. Beharrezko eremuak * markatuta daude

*Izena **

*E-posta **

Webgunea

Iruzkina

Ondorengo XHTML etiketa eta atributuak erabil ditzakezu: ` <abbr title="">
<acronym title=""> <blockquote cite=""> <cite> <code> <del datettime="">
<i> <q cite=""> <s> <strike> `

Bidali >

